

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Gure bezeroak ikasleak edo ikasteko gogoak dituzten pertsonak izango dira, zein karrera, ikastaro edo irteera aukeratzeko arazoak dutenak. Ikasten ari den prestakuntza amaitu ondoren zer egin ez dakiena edo zerbait ikasteko gogoak dutenak, nahiz eta aurretik ezer ikasi ez badute edo ikasi gabe denbora asko badaramate ere.

Ez da beharrezkoa gaztea izatea, edozein adinetakoak izan daitezke gure bezeroak. Baldintza bakarra ikasteko gogoia izatea da, gainera, hemendik ideiak hartu ahalko dituzte geroxeago lan bat topatzeko. Ideiak argi ez dituen pertsona zalantzatia izatea arazo bat da, baina konponbidea du, eta app honen bidez, artikuluak irakurtzen eta laguntzeko prest dagoen jende prestatuaren elkarrizketak entzun ahala konpon daitezke.

Estrategia masiboa da, ez gara zentratuko bezero espezifikoko baten, edozein adin, genero eta ikasketa maila. Gure aplikazioan aurkituko dituzten filtro bakarrak ez dira adinekoak izango, bilatzen duten ikasketa motakoak baizik.